

GURE PAZKOA

1

Jesus biztu zara ta
ai jai pozgarria!
Pozez doguz biHotza
eta eztarria.
Hortxe dogu guztiok
heriotz larria,
baina Zuk ase dozu
gure egarria:
zeruko giltz bihurtu
dozu hilarria.

2

Kristo berbiztu da ta
bizi gaiten alai,
zeru-lurretan danok
egiten dogu jai.
Danon Salbatzaileak
horra zer dauan nahi:
alkar maitatuz danok
gaitezala anai,
hauxe iragarteko
gizaki danai.

3

Aitak biztu dau Jesus
hau da miraria!
Gure fede-oinarri
dan gertakaria.
Aingerutxo bat dator
pazko kantaria:
Gizonak hil ebena
ha pekataria,
Aitak biztu egin dau,
hori da saria!

4

Gu gara aihenak ta
Kristo mahatsondoa,
holan ez da faltako
gustoko mordoa.
Guk frutu emotea
da bere gogoa:
emon daigula danok
asko ta gozoa;
Beragaz bat eginaz
hartzan dan zumoa.

5

Jesus berbiztu zana
guk fedez dakigu
hori ez jakitea
da nahiko kastigu.
Heriotzaren gaitzak
ez gaukaz katigu,
hau sinisten dogula
igerri bekigu;
geuk izan behar dogu
Jesusen testigu.